



BESTAK IGANTZI

2025

ttipi-ttapa | 886 zk. | 2025-09-18



IGANTZIKO BESTAK 2025

Irailak 20, larunbata

09:00etan gosaria Mukiegiko ehiztarien bordan. **09:30ean** plater tiroa Mukiegiko ehiztarien bordan. **12:00etan** herriko frontenis finalak. Gaztetxoak eta helduak. **16:00etan** mus eta partxis lehiaketa Baratzondon. **20:00etan** herriko dantza taldearen emanaldia.

Irailak 21, igandea

10:00etan karrikabuelta txistulariekin. **11:00etan** ajoarriero lehiaketa. **12:00etan** XXII. gazta lehiaketa. **18:30ean** karrikabuelta kankailuekin eta buruhandiekin herriko trikitilari gazteen laguntzarekin. **19:00etan** gazta eta opil dastaketa eta herriko trikitilari gazteen emanaldia.

Irailak 26, ortziralea

17:00etan goitibehera txapelketa. **20:00etan** altxaferoa Elutxa txarangarekin. **20:30ean** karrikabuelta kankailuekin eta buruhandiekin gaiteroek lagunduta. **00:00etan** kontzertuak: Tatxers eta Bad Sound System.

Irailak 27, larunbata

10:00etan karrikabuelta txistulariekin. **11:00etan** toka txapelketa frontoian haurrentzako eta helduentzako. **12:00etan** txistu kontzertua elizako atarian. **18:00etan** herri kirolak: Nafarroako arpana txapelketa mistoko kanporaketa, fardo altxatze erakustaldia bi bikoteren eskutik, eta herriko gazteen arteko desafioa. **17:00etan** hasita Puntu Morea. **20:00etan** DJ Tracka. **00:00etan** betizuak zezen plazan. **01:00etan** erromeria Gabezinekin.

Irailak 28, igandea

10:00etan karrikabuelta gaiteroekin. **12:00etan** karrikabuelta kankailuekin eta buruhandiekin gaiteroek alaituta. **17:00etan** pilota partidak. Lehenengo partidaren herriko neska eta mutil gaztetxoaren partidak; bigarrenaren Etxarri Aranazko Gure Pilota Klubaren eskutik neska gazteen gomazko paleta erakustaldia eta hirugarrenaren gizonezkoen afizionatuen elite mailako desafioa. Nafarroatik Beñat Apezetxea eta Hegoi Txoperena, eta Gipuzkoatik Julen Alberdi eta Oihan Etxeberria. **19:30ean** mutxikoak. **20:30ean** trikipotea Haitz Martinekin eta Ane Urbietarekin. **21:30ean** haurrentzako zezensuzkoa.

Irailak 29, astelehena

09:30ean karrikabuelta txistulariekin. **10:30ean** karrikabuelta ezpata dantzarekin eta txistulariekin. **11:30ean** meza nagusia abesbatzak kantatuta. **Ondotik**, bandera arbola doinuari dagokion ikurrinaren agurra eta herrian barna ezpata dantzarien eta dantzarien saioa. **17:00etan** soka dantza. **19:00etan** Belfast mariatxiak.

Irailak 30, asteartea

09:00etan gazteen gosaria. **10:00etan** karrikabuelta txistulariekin. **10:00etan** haurrentzako puzgarriak frontoian. **11:00etan** haurrentzako animaliak zezen plazan. **12:00etan** betizuak zezen plazan Joselontxos txarangarekin. **14:00etan** haurrentzako herri bazkaria. **14:00etan** herri bazkaria Julio Soto eta Iker Zubeldia bertso-lariekin. **15:00etan** haurrentzako puzgarriak frontoian. **19:00etan** Joselontxos txaranga.



607 88 39 68 · lander@okila.eu
Piedadeko auzoa, 32 · IGANTZI


Ongi pasa
Igantziko bestak!



Irrisarriland.com



ZUMARBEL
creaciones metálicas
Igantzi (Navarra)
948 63 74 11
ONGI PASA BESTAK



Lehen A.T.M. S.A
Berrizaun 25,
31790 IGANTZI
T. 948 63 74 11
@ info@zumarbel.es
www.zumarbel.es



OSKAR TXOPERENA

«Bestetan lanik handiena herritarrak lanera lotzea izaten da»

AITOR TXOPERENA EUGI IGANTZIKO GAZTEA

Udazkenarekin batera, besta usaina eta soinua izanen dituzte Igantzin hilabete hondarrean. Irailaren 26an hasi eta 29an bukatuko dira, nahiz aitzineko astebururako ere hainbat ekitaldi antolatu dituzten. Bestetan gozatzeko ordea, aitzinetik, isilpeko lanean aritu behar izaten dute batzuek, eta horietako bat da Aitor Txoperena Eugi gazte igantziarra. «Saltsa guztietan» sartua dago: dantzetan, erraldoien konpartsan, Besta Batzordean, gazteen taldean.... Eta denetan «gustura» aritzen da.

Besta Batzordea izaten da Igantzioko bestetako egitaraua antolatzeaz arduratzen dena. Herriko elkarte denak biltzen dira batzordean: Igantzioko dantzariak, konpartsa, txistulariak, Biltoki, Baratzondo, Abeluiaiz eta Guraso elkarteak eta Igantzioko Udala. Maiatz hondarrean hasi ziren biltzen. «Duela urte batzuk sanferminen hurrengo astean biltzen ginen lehenengoz, baina denboraz nahiko justu ibiltzen ginen batez ere txarangak eta kontzertuak lotzeko».

Antolaketa epea luzatuta, berriz, aise hobe moldatzen dira orain. «Besta Batzordeko lehenengo bileran aitzineko urteko programa hartu eta

balorazioa egiten dugu, eta kontzertuak eta pentsatzen hasten gara». Urteroko ekitaldi finkoak ere izaten dituzte, «meza, dantzak...», baina lan handirik ez dute izaten horiekin beti egun eta ordu berbera izaten baitituzte.

Besta eta lana uztartuta

Bertze herri aunitzetan bezala, bestetan gehien kostatzen zaiena, ordea, herritarrak lanera lotzea izaten da. «Jendeak ekitaldi batzuetan parte hartzen du, baina, laguntzea kostatzen zaie». Esprikatu du gauza tikiak izaten direla, pilota partidak direnean frontoitik eszenatokia kentzea, adibidez. «Tontakeriak izaten dira baina horietako ere jendea behar izaten da eta lautik hirutan berberak izaten gara lanean aritzen garenak».

Xarma «berezia»

Bereziak dira Igantzioko bestak Txoperenarentzat, eta gustuko ekitaldiak aukeratzekoan ez du zalantza handirik izan: txupinazoa, betizuak eta herri bazkariaren eguna. «Duela urte batzuk betizuak larunbat arratsean ere jartzen hasi ginen eta jende aldetik aunitz nabaritu dugu. Jende aunitz biltzen du betizuen kontuak». Tikitako oroitzapenetan ere horixe

Gora Sanmigelak!
besta dagoen lekuan maldarik ez, biba zuek!!!
bortzirudi
inprimategia
kopistegia • rotulazioa • serigrafia • papertegia
948631521
bortzirudi@gmail.com
astelehenetik ostiralera 9:30etatik 13:30etara

Ainhua Altzuguren Mitxelena **ongi pasa bestak!**
Abokatutza orokorrean • Herentziak
Alokairuak • Arazo administratiboak
Zerbitzua euskaraz ematen dut. Deltu hitzordua hartzeko
Legia 42, BERA - M. 630 97 21 89
ainhoaaltzuguren@gmail.com

Jauzia **ELEKTRIZITATE LANAK**
Erreforma, etxe berriak
Lantegietarako mantentze-lanak
EGUZKI
PANELEN
INSTALAZIOAK
948 631 217 | 630 136 863
Julio Caro Baroja 6, 31780 Bera
jaurenabera@gmail.com
ONGI PASA BESTAK!

E D A R I A K
MANUEL TABERNA S.L.
Bidasoa, 76 - 31780 BERA
948 63 10 27 | 670 598 560
info@tabernaedariak.eus
www.tabernaedariak.eus

L'IDERA
HORTZ KLINIKA - ESTUDIO DENTAL
INGURUNE BERRIA ZURE IRRIARENTZAT
Ortodontzia eta odontopediatria,
odontologia orokorra, endodontzia,
implanteak, errehabilitazio protesikoa,
hortzetako estetika, eta abar.
Al-Or: 08:00-13:00 | 15:00-20:00
Larunbatetan irekia: 08:00-13:00
Iturrunzubiko pl. 9-10 **LESAKA** | T. 722 662 478
lidera@hortzklina.es | @liderahortzklina

duiltzatua, betizuetan herriko gazteek egiten zuten ikuskizuna.

Gainera bestak irailean izateak ere xarma berezia ematen diotelakoan dago: «Herrietako bestak bukatzen dira, uda pasatuta jendea eskolara itzuli da... Jendea gogoz etortzen da besta egitera».

Lau egun beharrean bortz

Igantziara joan nahi duenak, gainera bestarako aukera zabalagoa izanen du aurreko bestak lau egunekoak beharrean bortzekoak izanen baitira «Noizbait egin izan dira bortz egunekoak», oroitarazi du Txoperenak. Aurtengoan asmoa lau egunera mugatzen zen, baina «txupinazoa larunbat eguerdian egitea pentsatu genuen eguna aprobetxatzeko. Ortziralerako ere gauzak antolatzen hasi ginen, eta azkeneko bestak ortziralean hastea erabaki genuen».

Besten atarian, eta Berrizaungo bestak pasatuta, herrian bestarako giroa sumatzen da. «Ostatueta edariaren eskariak ailegatzen dira, gazteak txosna muntatzen aritzen

gara, dantzako entseguak geroz eta maizago izaten ditugu... Horrek bizkortzen du jendea besta girora!».

Izan ere, Txoperena hitzetan, herri parte hartzailea izaten da Igantzi, nahiz eta ñabarduraren bat ere egin duen: «Laguntza behar delarik eta eskatuz gero, jendea animatzen da. Borondatez egite hori ez da aunitzetan izaten».

Besterako prest, baina bertzelakoan, triste samar ikusten du Txoperenak herria, batez ere bertan gelditu eta etxea lortzea «erraza» ez delako. «Jende gehiena kanpora doa, ez dagoe-lako aukera haundirik hemen gelditzeko, eta dauden aukera horiek diru aldetik garestiak direlako». Egoerari buelta emateko zerbait egin beharko litzatekeela uste du, «pisuak, babes ofizialeko etxebizitzak...».

Etorkizuneko erronkak alde batera, utzi, eta bortz egunez zapi berdea lepoan lotu eta karrikak egoteak egunak izanen dira igantziarrentzat: «Gainera, sanmigeletako uda txikia izaten dugu normalean, eta besta politak izaten dira».



OSKAR TXOPERENA



UTZITAKOIA



***Igantzik Udalak besta onak opa dizkizue
igantziar eta bisitari guztiei***